

Oporrak terrazetan

Joxean AGIRRE

Hamar egun eman genituen Venetoko eliza, santu, kapitel eta abside guztiak ikusten eta betekadarekin eta lepoko zainetako minarekin bukatu nuen. Horrela-ko zerbait gertatuko zitzaiola, pentsatu nuen, Stendhali ere Santa Croceko margolanak ikustera joan eta bere sindrome famatua jasan zuenean, bihotz taupadak, izerdi hotzak eta zorabioak izan zitue-
nean alegia, neuri ere neurri batetik gora arte sakroak ez baitit onik egiten.

Jende arruntari begira egoteko gogoarekin itzuli nintzen etxera. Lagin bat behar nuen eta eguarterean ardo bat aurrean dutela terrazetan esertzen diren adinekoak aukeratu nituen begira ego-

teko. Zarauzko malekoitik hasi eta Algortako Ereagara bitartean orduak eman ditut egiteko horretan. Gizonezkoak ziren gehienak, helduak edo adinekoak, eta oporretako poza nabari zitzaiela ondorioztatu nuen, bizitzarekiko konformidade bat. Norbaitek pentsa lezake hori etsipena ote den, baina uste dut gehiago dela daukatenarekin disfrutatzeko gaitasun bat.

Emakumeekin konparaketa bat egite aldera Malkorbe, Isuntza edo Ereagako hondartzetara ere egin nituen bisitak. Bermeon, Aritzatxura joateko mendizalea izan behar denez, portuko kaira joaten dira eguzkia hartzera. Antzeko adierazpideak sumatu nituen emaku-

meen aurpegietan ere, salbu eta batzuei aulkietan etzan eta zeruaren kupa urdinari begira jartzen direnean minen bat edo angustia puntu bat nabaritzen zaien, Venetoko santuei bezalaxe, zergatik ez badakit ere.

Erakunde serioak, Coca-Cola institutua esaterako, jendearen zoriona neurtzera dedikatzen badira, zergatik ez dut nik egiteko horretan denbora galduko?, esaten nuen neure golkorako eta gazte talde batzuk ere sartu nituen nire laginean ilunabar batean eta bizitzaren egarriz ikusi nituen (gaua, sexua eta emozio fuerteak espero zituztelako) Venetoko santuak zeruaren egarri bezalaxe, baina iritsiko zaien segurantzarik gabe. •

Jolas egiteko modu hori

Maddi Aiestaran
IPARRAGIRRE

Umetan jolas gehien egin genuen parkea bota dute. Ondotik kotxean pasatu naizenean konturatu naiz. Kolunpioak, txirrista, zaldi-zorua, tobogan horizontala eta etxolatxoa; dena zen lurraren gaineko harri-pila. Eta zerbait sumatu dut tripan; pena eman dit.

Orain dela urtebete, gutxi gorabehera, beste nonbaiteko lagun batzuek ahorik aho ibili zuten haien herriko parkeen eraberritzearen kontua: bota egin omen zituzten lehenik, berriak eraiki gero. Gure umezaroan ezagutu

ez genituen jolas egiteko moduak eza-gutu zituzten lagun horiek orduan, parke berri batetik beste parke berri batera bidean. Pentsatu nuen nahi nukeela gure umetako parke kuttunek lehengo jolas egiteko moduetan iraun dezaten; dena den, parkeen tokian parkeak egiten dituzten bitartean, pozik egon gaitezkeela iruditzen zitzaidan. Horrekin akordatu naiz gaur ere, gurean ere berdin gertatuko dela sinetsita, parke berri bat eraikiko dutela harri-pilaren gainean; «ez dezatela behintzat hotelik edo enpresa pribaturik altxatu hemen».

Harri-pila egin nahi dituzte, parkeak ez ezik, dena delako interesak asetzeko molestatzen duten etxebizitza-blokeak, basoak, gaztetxeak, mendiak, auzoak. Jolas egiteko modu hori omen da, gaur egun, lurrotan nagusi: bota, lehenik, berria eraiki gero.

Eta gu, askotan, ondotik kotxean pasatutakoan konturatzen gara parkea bota dutela, zerbait sumatzen dugu tripan, pena ematen digu, eta aurrera jarraitzen dugu, bi eskuak bolantean. Igual enteratu egin beharko naiz zer eraikiko duten umetan jolas gehien egin genuen lur zati kuttun horretan. •